


De Rerum Natura

@zaldiero



HIZPIDEAK

Duintasuna

Amagoia Mujika Tolaretxipi
@mmuxika

Huerta de Peralta Azkoiengo enpresako langile gehienak greba mugagabeen dira atzotik. LAB sindikatuko ordezkarri izateagatik edo haien laguntzeagatik kaleratu dituzten langileak itzultzea eskatzen ari dira. Iazko irailean, batzea erabaki zuten langileok, baldintza jasanezinak zituztelako, eta, langile batzordea osatzeko bozketan, LABen izenean aurkeztutakoek lortu zituzten bederatzik ordezkarietatik sei. Harrezkero, hainbat hobekuntza izan dituzte enpresan, baina erresistentzia horren ondorioz presioa jasaten ari dira, kaleratzeen bidez langileak banatzea baita asmoa.

Aurrera egiteko gogotsu dira langileak, ordea, langile batzordeko presidente El Houssine Yagoubik denen izenean argi esan duenez: «Ez dugu atzera egin, ez baitugu ezer galtzeko». Bai, berri, irabazteko.

Are gehiago, beren protestaren bidez, Erriberako landa lanetan ari diren migrazio guztien lan baldintzetan eragin nahi dute, errespetuzko tratua duina lortzeko; izan ere, denen egoera ez da Azkoiengo enpresakoa bezalakoa, lursail txikiagoetan aritzen baitira. Ez dute antolatzeko aukerarik ere; maiz, ez dituzte ezagutzen euren eskubideak, eta hizkuntza ez jakiteak ere babesik gabe uzten ditu, isilean eta ikusezin. Baina Azkoiengo langileon bozgorailua dute orain, eta haien duintasuna, egoera ezagutaraziz nor direla erakusteko esperantza izpi bat.

Mirra



HITZ ETZANAK
Andoni Egaña

Urra, Errege zelako; intsentsua, Jainko zelako; eta mirra, pertsona ere bazelako. Horregatik eraman omen zizkioten hiru opari horiek Errege Magoek jaioberriari Belengo estalpera. Baina izango zuten opariok garai hartako mugikortasun zailtasunekin zerikusirik ere. Inguruan ez zeukan zerbaitekarriki zioten behin ekialdetik etortzen hasita. Tuterako senitatekoak ez dira Lekeitiara saskikada

bat txitxarro hartuta bisitan joango...

Atzera begiratzen jarri eta grazia egiten du, esaterako, nabigazio balentriarik handienetakoak, zer eta espeziak ekartzeko egin izanak. Bakailao bila Ternuaraino joatea ulertzekoa da, baina munduari bira ematea piper-hautsa, kominoa, azafraia edo banilla eskura edukitzearen! Eta bixigarri edo goxagarri soilengatik egin zituzten sarraskiak egin zituztela sinestea ere! Zer pentsatua ematen du, halaber, garai batean gaitza ekoizteko gai zenak inguruan aberastun handiko guneak sortzen zituela jakiteak. Timbuktu, gatzari esker, espaloiak ere urrezkoak zirela esaten zen Parisen miresmenez eta inbidiaz... Zoaz orain!

Urte batzuk barru, harridura eta burlaize bertsuz begiratuko diote egungoari. «XX. mendean, eta XXI.enean, petrolioarengatik egin zituzten egitea ere!», esango dute.

Etsaiak, lagunak, ezkongaiak, maitaleak...

Eta senar-emazteak. Ipuinaren izenburuak izena ematen dio Alice Munro (Ontario, Kanada, 1931) idazle nobeldunaren ipuin-bilduma bati. Bere istorioetan apal sartzen gara, deus gertatuko ez balitz bezala, ustekabeko ziztada batek asaldatzen gaituen arte, arreta sukaldako apalategiaren deskripzioari edo tren geltokiko langilearen eginkizunari jarria diogun uanean. Gero, jasotakoaz gogoeta egin dezagun edo, erritmo lasaia ezartzen du berriro kontakizunaren amaieran, zauria mantsu orbain dadin.

Bada, Munroren idazkien antzera, halaxe bizi izan gara asko Nafarroako legegintzaldian; patxadaz eta gozamenek ospatu du-



LARREPIT
Jaime Gelabert

gu Erregimen Zaharraren porrota, eta, nahi baino motelago eta tartekako barne kontraesanak kontraesan, atseginaz ikusi dugu Aldaketa pixkana-pixkana zabalitzen zela jendartearen. Eta arreta bideratua genuenean -baita nik ere, daitort- eskuinaren ohiko ateraldi historikoetara, esaterako Ana Beltranen gorroto adierazpenetara edo Skolae programaren aurkako erantzun atzerakoira, kasketa eskuinaren -edo ultraeskuinaren- ezintasunaren seinale joa, zaplazteko asalagarriak, bata bestearen segidan, jaso ditugu. Lehenengo kolpea Nafarroako barometroak eman digu; antza, Aldaketa ez da espero genuen bezainbeste zabaldu eremu foralean, eta PSN Erre-

gimen Zaharraren partaide ohia beharrezko izan litzateke -barometroaren arabera- gobernu osoatzeko. PSN, Chivite eta Esporinaren alderdi hori. Bigarren Ahal Dugu-ren eskutik hartu digu. Joxerra Senarrek zehatz azaldu zuen alderdiaren barne-krisia eta zer eragin ekar diezaiokkeen hausturak Aldaketari: Orain Baik aldaketa lehertu du. Lagunak etsai bihurtuak, badirudi ezkutuko maitaleak zelatan daudela ezkongaien arteko eztabaidatik etekina ateratzeko, senar-emazte berria sortzeko asmotan.

Ez gara oraindik istorioaren azken paragrafora iritsi. Espero dezagun bukaera ez izatea -bestela oso gustuko dudana- horren garratza.

Zuzendaria: Martxelo Otamendi Zuzendariordea: Inaki Petxarroman Edizio arduraduna: Idurre Lazkano Argitaratzailea: Euskal Editorea SM Publizitatea: Bidera publizitatea Lege gordailua: SS-0662/03 Batzorde parekidea: 0722 184059 Egoitza nagusia: Martin Ugalde kultur parkea. Gudarien Etorbidea, z/g. 20140 Andoain Telefonoa: (0034) 943-30 40 30 Faxa: (0034) 943-30 09 43 Webgunea: www.berria.eus Posta elektronikoa: berria@berria.eus Publizitatea: publi@bidera.eu Harpidetza salla: (0034) 943-30 43 45 Data: 27/12/2018 Exempleaire: 4.817 Editeur: Euskal Editorea s.l. Directeur de publication: Martxelo Otamendi Comission paritaire: 0722 184059 Delegation Labour: Lisses 3, 64100-Baiona. Tel.: (0033)

559256220. Fax: (0033) 559254303. E-mail: lapurdi@berria.eus Ordezkaritzak: Araba: Bizenta Mogel, 6. Posta kodea: 01008 Gasteiz. Telefonoa: 945-15 04 52. Erredakzio faxa: 945-14 83 07. Posta elektronikoa: araba@berria.eus Bizkaia: Uribartea kalea, 18, 3. C. Posta kodea: 48001 Bilbo. Telefonoa: 94-435 26 00. Erredakzio faxa: 94-423 49 75. Posta elektronikoa: bizkaia@berria.eus Lapurdi: Lisses, 3. Posta kodea: 64100 Baiona. Telefonoa: 559-25 62 20. Faxa: 559-25 43 03. Posta elektronikoa: lapurdi@berria.eus Nafarroa: Iratxeko Monasterioa, 45, 13. Posta kodea: 31011 Iruñea. Telefonoa: 948-36 66 22. Publizitatea: 948-36 66 23. Posta elektronikoa: nafarroa@berria.eus.